

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Irailaren erdialdetik aurrera langile publikoek bizi pertsonala eta familiarra bateratzeko neurri berriei lotu ahalko diete

*Foru gobernua gaur onartu du araua, Nafarroako Kontseiluak txosten positiboa eginda*

Asteazkena, 2017.eko abuztuak 23

Datorren irailaren erdialdetik aurrera Nafarroako Administrazio Publikoetako langileek bizi pertsonala eta familiarra bateratzeko neurri berriei lotu ahalko diete. Horrela jasotzen da foru Gobernuak Nafarroako Kontseiluaren aldeko txosten jasota, gaur egindako bilkuran onartutako bi foru-dekretutan.

Zehazki, lanaldi murrizketako modalitateak handitu eta lizentziak eta baimenak hobetuko dira kasu hauetarako: ospitaleratzeak, gaixotasuna, heriotzak, haurdunaldiak, tratamendu medikoak, senideak zaintzea, prestakuntza eta lan-bizitzarekin eta bizi familiarrekin zerikusia duten egitekoak betetzeko.

Gogoratzekoa da neurri horiek aho batez onartu zituztela dagoeneko foru Gobernuak eta LAB, ELA, CCOO, AFAPNA eta UGT sindikatuek martxoaren 31n, Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahai Orokorrean.

Foru-dekretuetako bat langileek beraien lan-bizitza eta bizi familiarra uztartzeko duten eskubideari buruzkoa da. Orain arte, langile publikoek seiren bat, heren bat edo erdia bakarrik **murriztuz zezaketen lanaldia**; hemendik aurrera, oro har, beste lau aldaketa izango dituzte: lanaldiaren zortziren bat, lauren bat, bi bosten edo bi heren.

### Hobekuntzak lizentzietan eta ordaindutako baimenetan

Ordaindutako lizentzia eta baimenei dagokienez, **beste batzuk** sortu dira: haurdunaldiarengatik, 37. astetik aurrera; ospitaleratuta egon behar duten ume goiztiarren jaiotzarengatik; ezkontidea, bikote egonkorra edo lehen gradu senideak zaintzeko, gaixotasun oso larria badute.

Horrez gain, ordaindutako beste baimen batzuk daude erradioterapia edo kimioterapia tratamenduak jaso ondoren lanera bueltatzen laguntzeko; ezkontidea, bikote egonkorra edo lehen gradu senideak laguntza eskatzen duten prozedura diagnostikoak edo diagnostikoak egitera



Irailaren erdialdetik aurrera langile publikoek bizi pertsonala eta familiarra bateratzeko neurri berriei lotu ahalko diete.

laguntzeko, eta odola edo odol osagaiak emateko.

Halaber, ordaindu gabeko baimen bat sortu da hobekuntza profesionaleko ikastaroetara joateko.

Bestalde, jadanik zeuden zenbait lizentzia eta baimen **hobetu edo handitu** dira. Azkenik, aurretik zeuden baina arau ez ziren sindikatuen akordio batzuk baimenen dekretuetan ere barne hartzen dira, eta lan-bizitza eta bizitza familiarra uztartzearekin zerikusia duten eginbeharrak betetzeko, eta nahitaezko eginbehar publiko edo pertsonalak betetzeko baimenak definitzen dira.

Bi dekretuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean, irailaren erdialderako aurreikusita dagoena, aurretik adierazi den moduan.